

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Donemiliagako udalerrian seme-alabak jaio, adoptatu edo etxean hartzeagatik ematen diren laguntzen deialdia jasotzen duen 2021eko otsailaren 23ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 556372

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/556372>).

Deialdiaren xedea

Dirulaguntzak ematea Donemiliagako udalerrian umeen jaiotza, adopzioa edo etxean hartzea dela-eta, udalerrria osatzen duten herrietan belaunaldi berritzaia ziurtatzeko xedez.

Onuradunak

Umea jaio edo adoptatu aurreko bi urteetan, jarraian, Donemiliagako udalerrian erroldatuta egon diren eta bertan bizi diren aitak, amak, legezko tutoreak edo harrera familiak.

Betekizunak

– 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (egun biak barne), Donemiliagako udalerrian jaiotako eta erroldatutako umeak izatea.

– 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (egun biak barne) Donemiliagako udalerrian erroldatuta dauden adoptatutako edo etxean hartutako umeak izatea.

Laguntzaren eskatzaileak, laguntzaren onuradunak, udalerrian bi urte jarraian eraman behar ditu erroldatuta, umea jaio, adoptatu edo etxean hartu aurretik, eta bai berak bai umeak erroldatuta jarraitu behar du beste bi urtez, gutxienez, jaiotza edo adopzioaren ondoren.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udaltzako 2021eko otsailaren 23an egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 231 480001 aurrekontu aplikazioaren kontura emango da, 2.500,00 euroko zenbatekoarekin. Laguntzaren zenbatekoa 500,00 euro izango da.

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2021eko uztailaren 15ean bukatuko da.

Erdoña, 2021eko apirilaren 7a

Bigarren alkateordea

DAVID LÓPEZ DE ARBINA RUIZ DE EGUINO